**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

## 1. oharra.- Sozietatearen Jarduera

BEAZ, N.B.A. 1987ko maiatzaren 25ean sortu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko izaera mugagabeaz Bizkaian Enpresa eta berrikuntza Zentro bat abian jartzeko.

BEAZ, N.B.A. Sozietate Publikoa da eta, horrenbestez, aplikagarria den Toki Erregimenari buruzko legeria orokorrean horrelako sozietateentzat ezarritako arauen eta Bizkaiko Lurralde Historikoko foru xedapenen menpean dago.

Sozietatearen helbide soziala Bilbon dago, Kale Nagusiko 25. zkian, eta haren egoitza soziala Sabino Arana 8an dago.

Sozietateak beharrezko jarduera guztiak egingo ditu, enpresen lehiakortasuna sustatu, garatu eta indartzeko, kalitatezko lanpostuak sortu eta mantentzeko, eta, oro har, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzailea bihurtzeko, non sozietatearen kohesioak eta lehiakortasunak Bizkaiko gizartearen egungo eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten.

BEAZ, N.B.A.k, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren izenean eta kontura, erakunde laguntzaile legez dihardu Foru Sail horrek Bizkaiko sustatzaileei eta ETEei ekonomia sustatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko ematen dizkien diru-laguntzak kudeatzeko lanean.

Haren jardueraren helburua Bizkaiko lurralde eremuan erabilgarritasun publikoa duen zerbitzua ematea da eta, horrenebstez, mentsa urtero finantzatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak (3 eta 8.4 oharrak). Jasotako baliabideak Sozietatearen Ondare Garbiko “bazkideek galerak berdintzeko egindako ekarpena” atalean agertzen dira.

## Nota 1.- Actividad de la Sociedad

BEAZ, S.A.U., fue constituida el 25 de mayo de 1987 con carácter indefinido por Diputación Foral de Bizkaia para la puesta en marcha en Bizkaia de un Centro de Empresas e Innovación.

BEAZ, S.A.U., tiene la condición de Sociedad Pública y como tal está sometida a las normas establecidas para tales Sociedades en la legislación general sobre Régimen Local aplicable y en las disposiciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

La Sociedad con domicilio social en Bilbao, Gran Via 25, tiene su sede social en Sabino Arana nº 8.

La sociedad tiene por objeto social la realización de todas aquellas actividades necesarias para la promoción, desarrollo y fomento de la competitividad de las empresas, para la creación y mantenimiento de puestos de trabajo de calidad y, en general, para hacer de Bizkaia un territorio innovador, creativo, dinámico y emprendedor, en el que la competitividad y la cohesión social constituya la garantía del bienestar presente y futuro de la sociedad de Bizkaia.

BEAZ, S.A.U. actúa como entidad colaboradora en nombre y por cuenta del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia para gestión de las ayudas que el Departamento Foral otorga a las personas promotoras y a las pymes de Bizkaia en sus programas de promocion economica y mejora de la competitividad.

Su actividad tiene como fin ofrecer un servicio de utilidad pública en el ámbito territorial de Bizkaia y por consiguiente su déficit, conformado principalmente por su costo de estructura, es financiado anualmente por la Diputacion Foral de Bizkaia (Notas 3 y 8.4.) Los recursos recibidos se presentan en el apartado “aportación de socios para compensar perdidas” del Patrimonio Neto de la Sociedad.

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

## 2. oharra.- Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

2.1 Irudi zintzoa

Urteko kontuak Sozietatearen kontabilitateko erregistroetan oinarrituta egin dira, eta aurkezten dira indarrean dagoen merkataritza legeriaren eta Kontabilitate Plan Berria onartzen duen azaroaren 16ko 1514/07 Errege Dekretuan ezarritako arauen arabera, Sozietatearen ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi zintzoa erakusteko xedearekin, baita diru fluxuen egoera orrian sartutako fluxuen egiazkotasunarena ere.

Kontu hauek formulatzeko unean, indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arau eta irizpide guztiak bete dira, salbuespenik gabe.

2013ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko Kontuak 2014ko maiatzaren 6an elkartu zen Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen.

2014ko ekitaldiari buruzko urteko kontuak Sozietatearen Administratzaileek prestatu dituzte, eta Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeko zain daude; espero da horiek aldaketarik gabe onartuko direla.

2.2 Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

2.3 Zalantzaren balorazioaren eta kalkuluaren alderdi kritikoak

Urteko kontuak prestatzeko, Sozietateak etorkizunari buruzko kalkulu eta iritzi batzuk eman behar ditu:kalkulu horiek etengabe ebaluatzen dira,eta esperientzia historikoan eta beste hainbat faktoretan oinarrituta egiten dira, esaterako, dagoen egoeran oinarrituta etorkizunean gertatzeko modukotzat jotzen diren gertaerak.

## Nota 2.- Bases de presentación de las cuentas anuales

2.1 Imagen fiel

Las cuentas anuales han sido elaboradas a partir de los registros contables de la Sociedad y se presentan de acuerdo con las normas establecidas en el Real Decreto 1514/07 de 16 de noviembre por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad con el objeto de mostrar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, así como de la veracidad de los flujos incorporados en el estado de flujos de efectivo.

Se han seguido sin excepción todas las normas y criterios establecidos en el Plan General de Contabilidad vigentes en el momento de la formulación de estas cuentas.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio terminado el 31 de diciembre de 2013, fueron aprobadas por la Junta General Ordinaria Universal, celebrada el 6 de mayo de 2014.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2014 han sido formuladas por los Administradores de la Sociedad, hallándose pendientes de aprobación por parte de la Junta General, estimándose que serán aprobadas sin modificaciones.

2.2 Principios contables no obligatorios aplicados

No se han aplicado principios contables no obligatorios. No existe ningún principio contable que siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

2.3 Aspectos críticos de la valoración y estimación de incertidumbre

La preparación de las cuentas anuales exige el uso por parte de la Sociedad de ciertas estimaciones y juicios en relación con el futuro que se evalúan continuamente y se basan en la experiencia histórica y otros factores, incluidas las expectativas de sucesos futuros que se creen razonables bajo las circunstancias.

Funtsean, kalkulu horiek aktibo materialen eta ukiezinen bizitza baliagarriari buruzkoak dira (4.1 eta 4.2 oharrak).

Básicamente estas estimaciones se refieren a la vida útil de los activos materiales e intangibles (Nota 4.1 y 4.2).

Kalkulu horiek 2014ko ekitaldiaren itxieran eskuragarri zegoen ahalik eta informaziorik onenean oinarritu badira ere, daitekeena da etorkizunean izan daitezkeen gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldaraztea (gorantz edo beherantz), eta, orduan, modu prospektiboan egingo litzateke.

A pesar de que estas estimaciones se han realizado sobre la base de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2014, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a modificarlas (al alza o a la baja) en los próximos ejercicios, lo que se realizaría, en su caso, de forma prospectiva.

2.4 Informazioaren konparazioa

2.4 Comparación de la información

Aurten erantsitako kontuak urteko kontu osoak dira. Hori dela eta, 2013ko ekitaldirako egindako kontuekin konparatu daitezke homogeneoak baitira.

Las cuentas adjuntas constituyen cuentas anuales completas. En este sentido, son homogéneas a efectos comparativos con las formuladas para el ejercicio 2013.

2.5 Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

2.5 Cambios en criterios contables

2014ko ekitaldian ez da 2013ko ekitaldiaren urteko kontuetan kontabilitate-irizpideen ziozko egokitzerik egin.

No se han realizado en el periodo 2014 ajustes a las cuentas anuales del ejercicio 2013 por cambios en criterios contables.

2.6 Okerren zuzenketak

2.6 Correcciones de errores

Urteko kontuek ez dute ekitaldian igarritako okerren ziozko egokitzerik barru-hartzen.

Las cuentas anuales no incluyen ajustes como consecuencia de errores detectados en el ejercicio.

## 3. oharra.- Emaitzen aplikazioa

## Nota 3.- Aplicación de resultados

Administrazio Kontseiluak Akziodun Bakarrari ekitaldiko galerak, 3.674.296,24 eurokoak, konpentsatzea proposatuko dio, Bizkaiko Foru Aldunditik 2014ko ekitaldian jasotako ekarpenen kargura. Gainerako 136.579,40 euroak zuzenean Fondo Propioen kargura konpentsatuko dira. (8.4 oharra)

El Consejo de Administración propondrá al Socio Único la compensación de pérdidas del ejercicio por un importe de 3.674.296,24 euros con cargo a las aportaciones recibidas de la Diputación Foral de Bizkaia durante el ejercicio 2014, los restantes 136.579,40 euros se compensaran directamente contra Fondos Propios. (Nota 8.4)

Bestalde, 2014ko maiatzaren 6ko Akziodunen Batzar Orokorrean, 2013ko ekitaldiko galera guztiak, orotara 3.599.186,78 eurokoak, bazkideek galerak konpentsatzeko 2013ko ekitaldian bertan egin zituzten ekarpenez konpentsatzea erabaki zen, gainerako galerak, 131.295,96 eurokoak, Aurreko ekitaldien emaitza negatiboetan sartuz .

Por otra parte, en la Junta General de Accionistas de 6 de mayo de 2014, se aprobó la compensación de las pérdidas del ejercicio 2013, por importe de 3.599.186,78 euros, con las aportaciones de socios para compensación de pérdidas que se realizaron en el propio ejercicio 2013, pasando las restantes pérdidas, por importe de 131.295,96 euros, a integrar en Resultados negativos de ejercicios anteriores.

## 4. oharra.- Erregistro eta balorazio arauak

Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritakoaren arabera, Sozietateak urteko kontuak egiteko erabili dituen erregistro eta balorazio arau nagusiak hauek izan dira:

4.1 Ibilgetu ukiezina

Aktibo ukiezinak hasiera batean eskuratzeko edo produzitzeko izandako kostuagatik errekonozitzen dira eta, ondoren, baloratzeko, beren kostuari dagokion amortizazio metatua eta/edo hondatzeagatik izan duten galera kentzen zaie, dagokionaren arabera. Aktibo horiek bizitza baliagarriaren arabera amortizatzen dira.

Sozietateak kontabilitatean errekonozitzen du aktibo horien balioan hondatzeagatik gertatu den edozein galera; aktibo horiek hondatzeagatik gertatu diren galerak errekonozitzeko irizpideak eta, dagokionean, aurreko ekitaldietan hondatzeagatik erregistratu diren galeren berreskurapenak errekonozitzeko irizpideak, aktibo materialei aplikatutakoen antzekoak dira.

Aplikazio informatikoak:

Aplikazio informatikoak erosteko izandako kostuaren arabera baloratzen dira soilik hainbat ekitalditan erabiliko direla aurreikusten bada. Aplikazio informatiko horiek mantentzeko gastuak horiek egiten diren ekitaldiko gastu gisa egozten dira zuzenean. Epigrafe honetan sartzen dira erabiltzeko erositako lizentziak eta softwarea, baita ere informazio sistemak analizatzeko, programatzeko, integratzeko eta ezartzeko egindako gastuak. Horien amortizazioa modu linealean egiten da kalkulatutako bizitza baliagarrian, eta hori bost urte dela kalkulatzen da.

Aktibo ukiezinen balioa hondatzea:

Kasu guztietan, amortizatzeko ezarritako metodoak eta aldiak ekitaldiaren amaieran berrikusten dira eta, dagokionean, modu prospektiboan doitzen dira.

## Nota 4.- Normas de registro y valoración

Las principales normas de registro y valoración utilizadas por la Sociedad en la elaboración de sus cuentas anuales, de acuerdo con las establecidas por el Plan General de Contabilidad, han sido las siguientes:

4.1 Inmovilizado intangible

Los activos intangibles se reconocen inicialmente por su coste de adquisición o producción y, posteriormente, se valoran a su coste menos, según proceda, su correspondiente amortización acumulada y/o las pérdidas por deterioro que hayan experimentado. Dichos activos se amortizan en función de su vida útil.

La Sociedad reconoce contablemente cualquier pérdida que haya podido producirse en el valor registrado de estos activos con origen en su deterioro, los criterios para el reconocimiento de las pérdidas por deterioro de estos activos y, en su caso, de las recuperaciones de las pérdidas por deterioro registradas en ejercicios anteriores son similares a los aplicados para los activos materiales.

Aplicaciones informáticas:

Las aplicaciones informáticas se valoran por su coste de adquisición únicamente en los casos en que se prevé que su utilización abarcará varios ejercicios. Los gastos de mantenimiento de estas aplicaciones informáticas se imputan directamente como gastos del ejercicio en que se producen. En este epígrafe se incluyen las distintas licencias de uso y el software adquirido así como los gastos incurridos en el análisis, programación, integración e implantación de los sistemas de información. Su amortización se realiza de forma lineal en el periodo de vida útil estimado que es de cinco años.

Deterioro de valor de activos intangibles:

En todos los casos, los métodos y periodos de amortización aplicados son revisados al cierre del ejercicio y, si procede, ajustados de forma prospectiva.

Kasu bakoitzean aztertzen eta erabakitzen da ibilgetu ukiezin baten bizitza baliagarri ekonomikoa ezar daitekeen ala mugagabea den. Bizitza baliagarri zehatza duten ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira kalkulatutako bizitza baliagarrian zehar, eta berreskuragarritasuna aztertzen da kontabilitateko balio garbia ez dela berreskuragarria adierazten duten gertaerak edo aldaketak gertatzen badira.

En cada caso se analiza y determina si la vida útil económica de un inmovilizado intangible es determinable o indefinida. Los intangibles que tienen una vida útil definida son amortizados sistemáticamente a lo largo de sus vidas útiles estimadas y su recuperabilidad se analiza cuando se producen eventos o cambios que indican que el valor neto contable pudiera no ser recuperable.

4.2 Ibilgetu materiala

4.2 Inmovilizado material

Ibilgetu materiala hasiera batean eskuratzeko edo produzitzeko izandako kostuagatik errekonozitzen da eta, ondoren, minorizatu egiten da dagokion amortizazio metatuarekin eta hondatzeagatik izan dituen galerekin, 4.1. Oharrean aipatutako irizpidearen arabera.

El inmovilizado material se valora inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción, y posteriormente se minora por la correspondiente amortización acumulada y las pérdidas por deterioro, si las hubiera, conforme al criterio mencionado en la Nota 4.1.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementu desberdinak kontserbatzeko, mantentzeko eta konpontzeko aldizkako gastuak horiek egiten diren urteko galeren eta irabazien kontura egozten dira. Aitzitik, ondasun horien ahalmena edo eraginkortasuna handitzen edo bizitza baliagarria luzatzen laguntzeko hobekuntzetan egindako gastuak horien kostu handiago gisa erregistratzen dira, eta, ondorioz, ordeztutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Los gastos periódicos de conservación, mantenimiento y reparación de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos con el consiguiente retiro contable de los elementos sustituidos o renovados.

Erabiltzen den ibilgetu materialaren elementuen amortizazioa kostuaren balioaren arabera egiten da, metodo linealari jarraituz, aurreikusten diren bizitzako hurrengo urte baliagarrietan zehar:

La amortización de los elementos del inmovilizado material en uso se realiza sobre los valores de coste siguiendo el método lineal, durante los siguientes años de vida útil estimados:

| | Erabilgarri izango den urte kopurua/<br>Años de vida útil |
|---|---|
| Instalazio teknikoak eta makineria<br>Instalaciones técnicas y maquinaria | 10 / 7,7 |
| Beste instalazio batzuk, lanabesak eta higigarriak<br>Otras instalaciones, utillaje y mobiliario | 10 / 7,7 |
| Informazio prozesuetarako ekipoak<br>Equipos para procesos de información | 5 |
| Bestelako ibilgetua / Otro inmovilizado | 10 / 7,7 |

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

Kalkulatutako hondar balioak eta amortizatzeko ezarritako metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitzaren amaieran berrikusten dira eta, dagokionean, modu prospektiboan doitzen dira.

Los valores residuales estimados y los métodos y periodos de amortización aplicados son revisados al cierre de cada ejercicio y, si procede, ajustados de forma prospectiva.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran, dagokionean, beharrezko zuzenketa baloratiboak egiteko komenigarritasuna aztertzen da, ibilgetu materialeko elementu bakoitzari ekitaldi bakoitzaren amaieran dagokion balio berreskuragarririk txikiena egozteko, betiere egoerarik edo aldaketarik badago ibilgetuaren kontabilitateko balio garbia ez dela guztiz berreskuragarria adierazten duenik, kostu eta gastu guztiak estaltzeko behar besteko sarrerarik sortu ez delako. Horrela gertatuz gero, balioa zuzentzeko kausak desagertzen badira, azpiko balorazioa ez da mantenduko.

Al cierre de cada ejercicio se analiza la conveniencia de efectuar, en su caso, las correcciones valorativas necesarias, con el fin de atribuir a cada elemento de inmovilizado material el inferior valor recuperable que le corresponda al cierre de cada ejercicio, siempre que se producen circunstancias o cambios que evidencian que el valor neto contable del inmovilizado pudiera no ser íntegramente recuperable por la generación de ingresos suficientes para cubrir todos los costes y gastos. En este caso, no se mantiene la valoración inferior si las causas que motivaron la corrección de valor hubiesen dejado de existir.

4.3 Errentamenduak

4.3 Arrendamientos

Sozietateak errentamendu operatiboko hainbat kontratu ditu izenpetuta, errentaria izanik.

La Sociedad tiene suscritos diversos contratos de arrendamiento operativo en las que actúa como arrendataria.

Errentamendu operatiboko hitzarmenetatik datozen gastuak galeren eta irabazien kontuan kargatzen dira, horiek sortzen diren ekitaldiaren barruan.

Los gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan.

4.4 Finantza tresnak

4.4 Instrumentos financieros

4.4.1 Aktibo finantzarioak

4.4.1 Activos financieros

Hasieran erregistratzen dira emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioarekin gehi zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuekin.

Se registran inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles.

Aktibo finantzarioak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

Los activos financieros se clasifican en las siguientes categorías:

a) Taldeko enpresetan eta elkartuetan egindako inbertsioak: taldeko enpresetan dagoen partaidetzarengatik sortutako finantza aktiboak, merkatu aktiboan negoziatu gabe.

a) Inversiones en empresas del grupo y asociadas: activos financieros originados por la participación en empresas del grupo y que no se negocian en un mercado activo.

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

Inbertsio hauek beren kostuan baloratuta daude, kasua balitz hondatzearengatik egindako balorazioetan metatutako zenbatekoa kenduta.

Zatika edo osorik diru-laguntzen bidez finantzatu diren finantza aktiboetan egindako balorazioen zuzenketak atzeraezinezkotzat jotzen dira finantzatuak izan diren partean.

b) Kobratzeko maileguak edo partidak: ondasunak saltzetik edo enpresaren trafikoko operazioetan emandako zerbitzuetatik sortutako aktibo finantzarioak, edo, jatorri komertzialik izan gabe, ondareko tresnak ez direnak ezta horien eratorriak ere, eta kobratzeko zenbateko finkoa edo mugagarria dutenak eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez direnak.

c) Dirua eta antzeko beste aktibo likidoak esaten denean esan nahi da kaxan eta kontu korronteetan dagoen dirua, ageriko banku gordailuak eta bestelako tresna oso likidoak, jatorrian hiru hilabeteko mugaeguna edo txikiagoa dutenak, eta balioa aldatzeko arrisku minimoa dutenak.

Aktibo finantzarioetan jasotako interesak eta dibidenduak:

Aktibo finantzarioak erosi ondoren sortu diren interesak eta dibidenduak galeren eta irabazien kontuan errekonozitzen dira.

4.4.2 Pasibo finantzarioak

Pasibo finantzarioak hitzartutako kontratuetako akordioen edukiaren arabera eta fondo ekonomikoa kontuan hartuta sailkatzen dira.

Zehazki, pasibo finantzarioak dira Sozietateak ordaintzeko dituen zorrak eta partidak, ondasunak erosteagatik eta enpresaren trafikoko operazioengatik sortuak, edo baita ere, jatorri komertziala izan gabe, tresna finantzario eratorritzat jo ezin direnak.

Estas inversiones se encuentran valoradas a su coste, menos, en su caso, el importe acumulado de las correciones valorativas por deterioro.

Las correciones valorativas realizadas sobre activos financieros que de forma parcial o total han sido financiados mediante subvenciones, se consideran de caracter irreversible en la parte que estos hayan sido financiados por las mismas.

b) Préstamos y partidas a cobrar: activos financieros originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o los que no teniendo un origen comercial, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable y no se negocian en un mercado activo.

c) Efectivo y otros activos líquidos equivalentes incluye el efectivo en caja y cuentas corrientes, depósitos bancarios a la vista y otros instrumentos altamente líquidos con vencimientos iguales o inferiores a tres meses y con un riesgo insignificante de cambio de valor.

Intereses y dividendos recibidos de activos financieros:

Los intereses y dividendos de activos financieros devengados con posterioridad al momento de adquisición son reconocidos en la cuenta de pérdidas y ganancias.

4.4.2 Pasivos financieros

Los pasivos financieros se clasifican conforme al contenido de los acuerdos contractuales pactados y teniendo en cuenta el fondo económico.

En concreto, son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene la Sociedad y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

Ordaintzeko zorrak eta partidak:

Hartzekodun komertzialek ez dute esplizituki interesik sortzen eta beren balio nominalarekin erregistratzen dira.

Mugaeguna urte bat baino luzeagoa ez duten eta kontratuko interes tasa ez duten operazio komertzialengatik dauden zorrak, hasieran zein ondoren, beren balio nominalarekin baloratzen dira, diru fluxuak ez eguneratzearen ondorioak garrantzirik ez badu.

Pasibo finantzarioen baja:

Sozietateak pasibo finantzarioak sortzen dituzten obligazioak amaitzen direnean emango die baja.

Zorrak korrontean eta ez korrontean sailkatzea:

Ondoko balantzean, zorrak mugaegunen arabera sailkatzen dira, hau da, zor korronteak izango dira mugaeguntzat hamabi hilabete edo gutxiago dutenak, eta zor ez korronteak tarte hori baino handiagoa dutenak.

4.4.3 Ondare baliabideak

Ondare garbia:

Sozietatearen kapitaleko tresnak eta ondareko beste batzuk ondare garbian jasotako zenbatekoarekin erregistratzen dira, jaulkipenaren zuzeneko kostuetatik garbi, izan ere, erreserba txikiago gisa erregistratzen dira.

Kapital soziala:

Akzio arruntak kapitaltzat sailkatzen dira. Ez dago bestelako akziorik.

Akzio berriak jaulkitzeari edo erosteari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, ondare garbian kontabilizatzeko, horren zenbatekoaren kenkaritzat hartuko dira.

Débitos y partidas a pagar:

Los acreedores comerciales no devengan explícitamente intereses y se registran a su valor nominal.

Los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tienen un tipo de interés contractual se valoran, tanto en el momento inicial como posteriormente, por su valor nominal cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

Baja de pasivos financieros:

La Sociedad da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

Clasificación de deudas entre corriente y no corriente:

En el balance adjunto, las deudas se clasifican en función de sus vencimientos, es decir, como deudas corrientes aquéllas con vencimiento igual o anterior a doce meses y como deudas no corrientes las de vencimiento posterior a dicho período.

4.4.3 Instrumentos de patrimonio

Patrimonio neto:

Los instrumentos de capital y otros de patrimonio emitidos por la Sociedad se registran por el importe recibido en el patrimonio neto, neto de costes directos de emisión, que se registran como menores reservas.

Capital social:

Las acciones ordinarias se clasifican como capital. No existe otro tipo de acciones.

Los gastos directamente atribuibles a la emisión o adquisición de nuevas acciones se contabilizarán en el patrimonio neto como una deducción del importe del mismo.

4.5 Kontabilitateko estaldurak

Arrisku jakin batzuetan jartzeko estaldura behar bada, dagokionean, Sozietateak operazioak estaltzeko egokitzat jotzen diren kontratuak egingo ditu.

4.6 Transakzioak atzerriko dirutan

Sozietatearen moneta funtzionala euroa da. Hala ere, euroa ez den bestelako dirutan, hau da, "atzerriko monetan", eragiketak egiten dira. Horrenbestez aldaketak erregistratzen dira truke tasen aplikazioagatik.

4.7 Mozkinen gaineko zerga

Bere nolakotasun ekonomikoa dela-eta, Sozietateak aurkezten duen elkarteen gaineko zergak oinarri ezargarri negatiboa dauka. Etorkizunean zerga irabazirik izatea aurreikusten ez denez, ez da aktiborik erregistratzen konpentsatu beharreko oinarri ezargarrien ondoriozko zerga geroratuengatik ezta aplika daitezkeen zerga kenkariengatik.

4.8 Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sorrarazpen irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek ordezkatzen dituzten ondasunen eta zerbitzuen egiazko mugimendua gertatzen denean, alde batera utzita horietatik ondorioztatzen den diru korrontea edo finantzarioa noiz gertatzen den.

Sozietateak, funtzio publikoa betetzeko duen zeregin instrumentalarengatik, oro har ez ditu egozten ematen dituen zerbitzuak.

4.9 Hornidurak eta kontingentziak

Urteko kontuek jasotzen dituzten horniduren ezaugarria da espero dela horien obligazioari erantzun behar izateko probabilitatea erantzun behar ez izateko probabilitatea baino handiagoa dela.

4.5 Coberturas contables

En el caso de necesidad concreta de cubrir su exposición a un determinado riesgo, la Sociedad formalizaría, en su caso, aquellos contratos considerados adecuados en cobertura de operaciones.

4.6 Transacciones en moneda extranjera

La moneda funcional de la Sociedad es el euro. Sin embargo, se realizan operaciones en otras divisas distintas del euro denominadas en “moneda extranjera”. En consecuencia, se registran variaciones por aplicación de los tipos de cambio.

4.7 Impuesto sobre beneficios

Dada su naturaleza economica, la Sociedad presenta su impuesto sobre sociedades con base imponible negativa. En la medida en que no se prevé disponer de ganancias fiscales futuras, no se registran activos por impuestos diferidos como consecuencia de bases imponibles negativas a compensar ni por deducciones fiscales aplicables.

4.8 Ingresos y gastos

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos.

La sociedad, dado su caracter instrumental como mandataria para cubrir una funcion publica, en general, no repercute los servicios que presta.

4.9 Provisiones y contingencias

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario.

Finantza konpromisoak, abalak eta bermeak eta beste pasibo batzuk ez dira agertzen balantzean; txostenaren oharretann ematen da haien berri.

Los compromisos financieros, avales y garantías y otros pasivos contingentes no se reconocen en el balance, se informa sobre los mismos en las notas de la memoria.

4.10 Ingurumenari eragiten dioten jarduerak

4.10 Actuaciones con incidencia en el medio ambiente

Sozietatearen jarduerara, bere izaerarengatik, ez dio eragiten ingurumenari.

La actividad de la Sociedad, por su naturaleza no tiene un impacto medioambiental significativo.

Ingurumeneko jardueren helburua ingurumenean sortzen den kaltea prebenitzea, gutxitzea edo konpontzea da.

La actividad medioambiental es aquella cuyo objetivo consiste en prevenir, reducir o reparar el daño que se produce sobre el medioambiente.

Sozietateak ez du inbertsiorik egin ibilgetu materialean ingurumen inpaktua murrizteko eta ingurumenean hobekuntzak egiteko, nahiz eta bere jardueren ingurumen inpaktua murrizten ahalegintzen den.

La Sociedad no ha realizado ninguna inversión en inmovilizado material cuyo fin sea la minimización del impacto medioambiental y la protección y mejoras del medioambiente, si bien vela por la minimización del impacto ambiental de su actividad.

4.11 Langile gastuak eta pentsioengatiko konpromisoak

4.11 Gastos de personal y compromisos por pensiones

Langile gastuetan sartzen dira une bakoitzean maila sozialean sortzen diren hartzeko eta betebehar guztiak, derrigorrezkoak zein borondatezkoak, eta betebeharrak errekonozitzen dira aparteko ordainsariei, oporrei edo hartzeko aldagarriei eta horiei elkartutako gastuei dagokienez.

Los gastos de personal incluyen todos los haberes y las obligaciones de orden social obligatorias o voluntarias devengadas en cada momento, reconociendo las obligaciones por pagas extras, vacaciones o haberes variables y sus gastos asociados.

Sozietateak bertako langileentzat Bizkaiko Foru Aldundiak sozietate publikoei ezarritako araua ezartzen du, lanpostu bakoitzean dezkripzioa, perfila eta baioespena egokituz, baita lanordutegia ere, bere ariketa berezia dela eta. Gainontzeko aldeentzako Bizkaiko Foru Aldundiak haren langileentzat ezarritako baldintzen antzekoak dira.

La Sociedad aplica a su personal el régimen establecido por la Diputación Foral de Bizkaia a las empresas forales, adaptando la descripción, perfil y valoración de los puestos de trabajo, así como la jornada laboral a las especifidades de su actividad. Para el resto de los aspectos las condiciones son muy parecidas a las establecidas para el personal laboral de la Diputación Foral de Bizkaia.

Horren arabera, Sozietateak 2011. urtea arte pentsio sistema osagarrietarako ekarpenak egiten ditu, Elkarkidetza BGAEari egindako ekarpenen bidez, zeinak Elkarkidetzak kategoria profesional bakoitzerako ezarrita dituen. Sozietateko langile aktiboei hilero ordaindu zaizkien ekarpenak langile gastuen kontura erregistratu dira.

Conforme a ello, la Sociedad ha efectuado, hasta 2011, aportaciones a sistemas complementarios de pensiones mediante aportaciones efectuadas a la E.P.S.V. Elkarkidetza establecidas para cada categoría profesional por la señalada E.P.S.V. Las aportaciones definidas satisfechas con carácter mensual al personal activo de la Sociedad, se han registrado con cargo a cuentas de gastos de personal.

Ekarpen hori 2012an eta 2013an partzialki eten ondoren (arrisku-sariari dagokion % 10eko ekarpenari eutsi zaio), Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea bi urte horietarako betetzearen ondorioz, ekarpen horren % 100 berriro egin da 2014ko ekitalditik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2014ko otsailaren 25eko Erabakiari jarraiki. Erabaki horretan adierazi denez, ekarpena berriro abian jartze horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondoreak izango ditu.

Tras la suspensión parcial de dicha aportación en los años 2012 y 2013 (se ha mantenido la aportación del 10% correspondiente a la prima de riesgo), a raíz de la observación de la Ley de Presupuestos Generales del Estado para ambos años, se ha retomado la misma al 100% a partir del ejercicio 2014, siguiendo el Acuerdo del Consejo de la Diputación foral de Bizkaia con fecha 25 de febrero de 2014, en que se observa que este reinicio sea con efectos retroactivos desde el 1 de enero de 2014.

Beste aldetik, Sozietateko langileen derrigorrezko erretiroa 65 urte betetzean aldarrikatuko da ofizioz, Goi Zuzendaritzako kontratuetan izan ezik, baina 60 urtetik aurrera aurretiazko erretiroa hartu nahi dutenek borondatezko erretiroaren primarako eskubidea izango dute; azken horren zenbatekoa aipatu eskubidea gauzatzeko eskatzen dutenean jasotzen dituzten urteko ordainsari gordin osoen arabera eta borondatezko erretiroaren adina betetzeko dataren arabera zehaztuko da.

Por otra parte, la jubilación forzosa de los trabajadores de la Sociedad se declarará, excepto en los contratos de Alta Dirección, de oficio al cumplir los 65 años de edad, si bien aquellos que opten por la jubilación anticipada a partir de los 60 años tendrán derecho a una prima de jubilación voluntaria cuyo importe se establece en función de las retribuciones íntegras brutas anuales que perciban a la fecha en que soliciten el ejercicio del mencionado derecho y la fecha de cumplimiento de la edad de jubilación voluntaria.

2013. ekitalditik aurrera, Sozietateko langileek era gehigarrian aukeran izango dute kalte-ordainaz lagundutako ukoaren bidezko mota, biltzen diren egoera jakinak izanez gero.

A partir del ejercicio 2013, el personal de la Sociedad puede optar, de forma adicional, por la modalidad de renuncia incentivada en caso de reunirse las circunstancias necesarias para ello.

Bizkaiko Foru Aldundiak Aurrekontuen egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu-legeak, bere 2. artikuluan, 1. atalean, ezartzen duenari dagokionez hartutako erabakia gauzatuz 2012. urteko abenduko aparteko ordainsaria bertan behera gelditu zen Foru Sozietate Publikoko langile guztientzat.

En aplicación al acuerdo adoptado por la Diputación Foral de Bizkaia en relación a lo dispuesto en el artículo 2.1 del real decreto Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, se suprimió la paga extraordinaria del mes de diciembre de 2012 para todo el personal de la Sociedad Pública Foral.

Hala ere, Sozietateak, Legean zenbateko zehatz bateko langileekiko betebeharra ezarririk dagoela ulertuta, betebehar horretarako zenbatetsitako kopuruaren arabera pasiboa (hornidura) aintzatetsi zuen.

No obstante, la Sociedad estimando que la Ley establecía una obligación para con los trabajadores de cuantía determinada reconoció un pasivo (provisión) por la cantidad estimada para dicha obligación.

Horri dagokionez, 2012an abenduko aparteko soldatari aplikatu ez zitzaion kreditu osoa sartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 2014ko ekitaldiko aurrekontuan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2014rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 20ko 14/2013 Foru Arauan jasotzen denaren arabera.

En tal sentido Diputación Foral de Bizkaia incorporó en el presupuesto del ejercicio 2014 todo el crédito no aplicado durante el año 2012 a la paga extraordinaria de diciembre, tal y como se recoge en la Norma Foral 14/2013, de 20 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2014.

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta sindikatuen arteko 2014ko urriaren 3ko Akordioa dela bide, Sozietateak hornidura hori aplikatu du, aurreikusirik zegoen pasiboa ordaindu izanaren emaitza gisa.

Consecuentemente y en virtud del Acuerdo de 3 de octubre de 2014 entre la Diputación Foral de Bizkaia y las centrales sindicales, la Sociedad ha aplicado dicha provisión como resultado del pago del pasivo previsto.

Kaleratzeagatiko kalte-ordainak:

Indemnizaciones por despido:

Bidezko arrazoirik izan ezik, Sozietateak beren langileei kalteordainak ordaindu behar dizkie beren zerbitzuei amaiera ematen zaienean.

Excepto en el caso de causa justificada, la Sociedad viene obligada a indemnizar a sus empleados cuando son cesados en sus servicios.

Enplegua modu anormalean bukatzeko beharrik aurreikusten ez denez, eta beren borondatez zerbitzuari uzten dioten langileek kalte-ordainik jasotzen ez dutenez, kalte-ordainen ordainketak, gertatzen direnean, gastuetan kargatzen dira, kaleratzea gauzatzeko erabakia hartzen den unean.

